



**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prentsa oharra:
Martxoak 25eko greba balorazioa

EAEko hezkuntza publikoko irakasleei grebekin jarraitzea baino ez zaie geratzen

Greba zikloko bosgarren grebak %75eko jarraipena izan du

Atzo arratsaldean burututako mahai negoziatzailearen aurretik **Hezkuntza Sailak aurreakordio proposamena bidali** zien sindikatuei. Aurreakordio honek sektoreko beharrei erantzuteko edukirik ez zekarren. Grebetan **aldarrikatutako eduki gehigarriak mahai gainean ipintzea eskatu zioten sindikatuek**. Zoritxarrez, ez da horrela izan.

Sindikatuok garbi daukate eszenifikazio eta itxurakeria baten aurrean daudela. Hezkuntza Sailak badaki, argi eta garbi, zein eduki jarri behar dituen mahai gainean piztuta dagoen gatazka bideratzeko. Eduki eta zehaztapenak txertatzeko exijitu zaienean, ez dela posible esan zaie.

Atzokoa salatu nahi dute, Hezkuntza Saila fede txarrez aritu dela pentsatzen baitute. Hezkuntza publikoko irakasleon lan-baldintzak hobetuta, hezkuntza publikoko kalitateak hobera egingo duela argi utzi dute eta helburu horrekin borrokan tinko jarraituko dute.

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuok deitutako **grebak jarraipen zabala izan du**, urtarrila eta otsailean egindako beste lau greba egunen antzera. Grebak jarraipen zabala izan du, izan ere, **deitutako %75ek** babestu du. Hala ere, salatzea da Eusko Jaurlaritzak ezarritako **gehiegizko zerbitzu minimoak** direla eta ehundaka **langileri greba eskubidea ukatu** zaiela.

Grebaren arrakastaren adibide garbia da Bilbon batu garen jendetza. "Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!" lelopean deitutako mobilizazioan milaka langile elkartu gara. Milaka langilek salatu dute EAEn Hezkuntza Sailaren jarrera: **Hezkuntzako langileon lan-baldintzak okertzen ari dira**, Hezkuntza Sailak erabakiak aldebakarrez hartzen ditu eta negoziazioak eduki esanguratsu gabe etengabe luzatzen ditu.

Aurretik burututako grebek eta mobilizazioek mahai negoziatzaileak deitzera eta pauso gutxi batzuk ematera behartu dute Hezkuntza Saila. Argi dago grebak direla Jaurlaritza mugiarazten dutenak. **Sindikatuok benetako negoziazio erreala burutu nahi dute, hitz eta asmo politetatik harago.** Edukia, zehaztapena eta konprezioa behar du balizko akordioak. Beste behin ere, atzo, Hezkuntza Sailaren asmoa negoziaketak irudikatzea izan zen.


Bosgarren greba egun honetan ere, **irakasleok oso mezu argiak** helarazi dizkiote Hezkuntza Sailari:

- 15 urte direla hitzarmena eguneratu gabe; eta aski dela.
- Lan zamak arintzea, plantilak gazteberritzeko plan egokia ezartzea, enplegu publikoa kontsolidatu eta bermatzea, eros ahalmena berreskuratzea, lan osasuna zein euskara eta hezkidetzak bermatzeko neurriak proposatzeko garaia dela.
- Ez badago aldarrikapen hauekiko erantzunik grebetan jarraitzeko indarrekin gaudela.

Beraz, Hezkuntza sailari eduki, **zehaztapen eta konprezioak dituzten mahaiak deitzeko exijitzen** diote. Hezkuntza publikoa indartzeko ezinbestekoa da inbertsioa handitzea eta lan baldintzak hobetzea eta eskola publikoa baliabideez hornitzea.

Gaurko egunari jarraipena emanez, **bihar eta etzi ere greba egunak dituzte** EAEko hezkuntza publikoko irakasleek.





Mejora de las condiciones
laborales en la educación
pública.
Decididas aquí y ahora.

Prentsa oharra:
Valoración de la huelga del 25 de marzo

Al profesorado de la enseñanza pública vasca solo les queda seguir con las huelgas

La quinta huelga del ciclo de huelgas registra un seguimiento del 75%

El **Departamento de Educación** envió a los sindicatos una **propuesta de preacuerdo** antes de la mesa negociadora celebrada ayer por la tarde. Este preacuerdo no traía contenido para dar respuesta a las necesidades del sector. Los sindicatos le **pidieron que pusiera encima de la mesa los contenidos reivindicados en las huelgas**. Desgraciadamente, no ha sido así.

Los sindicatos tienen claro que están ante una escenificación y una hipocresía. El Departamento de Educación es consciente de los contenidos que tiene que poner sobre la mesa para encauzar el conflicto que está iniciado. Cuando se les exige que incorporen contenidos y especificaciones la respuesta es que no es posible.

Los sindicatos denuncian lo de ayer, porque piensan que el Departamento de Educación ha actuado con mala fe. Con la mejora de las condiciones laborales del profesorado de la educación pública, dejan claro que la calidad de la educación pública mejorará y seguirán luchando con ese objetivo.

La **huelga** convocada por STEILAS, LAB, ELA y CCOO ha tenido **un amplio seguimiento**, similar a las otras cuatro jornadas de huelga celebradas en enero y febrero. La huelga ha tenido un amplio seguimiento, ya que ha sido respaldada por el 75% de los convocados. Sin embargo, denuncian los **servicios mínimos abusivos** establecidos por el Gobierno Vasco, ya que se ha **denegado el derecho de huelga** a cientos de trabajadores y trabajadoras.

Un claro ejemplo del éxito de la huelga es la multitud reunida en Bilbao. La movilización, convocada bajo el lema "Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!", ha contado con la presencia de miles de profesoras y profesores de la enseñanza pública. Miles de profesoras y profesores han denunciado en la CAV la actitud del Departamento de Educación: **las condiciones laborales del profesorado de Educación están empeorando**, el Departamento de Educación toma decisiones unilateralmente y las negociaciones se prolongan sin contenido.

Las huelgas y movilizaciones llevadas a cabo con anterioridad han obligado al Departamento de Educación a convocar mesas negociadoras y a dar unos pocos pasos. Es evidente que son las huelgas las que mueven al Gobierno. Los sindicatos quieren **culminar una negociación real, más allá de palabrerías y propósitos bonitos**. El posible acuerdo requiere contenido y concreción. Una vez más, ayer, la intención del Departamento de Educación fue escenificar las negociaciones.

También en esta quinta jornada de huelga, el profesorado ha trasladado **mensajes muy claros** al Departamento de Educación:

- 15 años sin actualizar el acuerdo laboral.
- Aliviar las cargas laborales, establecer un plan adecuado para rejuvenecer las plantillas, consolidar y garantizar el empleo público, recuperar el poder adquisitivo, es hora de proponer medidas para garantizar tanto la salud laboral como el euskera y la coeducación.
- Si no hay respuesta a estas reivindicaciones estamos con fuerzas para seguir en huelgas.

Por tanto, exigen al Departamento de Educación que **convoque mesas con contenidos y concreciones**. Para reforzar la educación pública es imprescindible aumentar la inversión y mejorar las condiciones laborales y dotar de recursos a la escuela pública.

Dando continuidad a la jornada de hoy, **mañana y pasado también hay convocadas jornadas de huelga** del profesorado de educación pública de la CAV.

